



Gatikako udala  
Bizkaia

2014ko abenduaren 30eko OHIKO  
OSOKO BILKURAREN AKTA

DEIALDIA: LEHENA  
HASIERA ORDUA: 20.03  
BUKAERA ORDUA: 20.17

### Bertaratutakoak:

- 1.- Jesus Maria Fullaondo Alzibar.
- 2.- Leixuri Arrizabalaga Arruza.
- 3.- Maite Lekanda Bilbao.
- 4.- Vanesa Alvarez Zorrilla.
- 5.- Jon Ugutz Rotaetxe Arrizabalaga.
- 6.- Maite Lekanda Bilbao.
- 7.- Unai Arruza Elorduy.
- 8.- Naiara Beldarrain Fullaondo.

**Idazkaria:** Iker Jaka Arratibel

Ez da etorri eta ez du abisua eman:  
Mikel Larrazabal.Zurbanobeaskoetxea

### 1.- ARTEKO AKTAREN ONARPENA.

2014ko abenduraren 17ko ezohiko osoko bilkuraren akta bertaratuek aho batez onartu dute.

### 2.- DEKRETUAK.

2014/193	13/11/2014	A.L.T. ri "etxebizitza amaitze lanak" egiteko lizentzia emoteko.
2014/194	14/11/2014	S.A.P. andreari azaroak 14an afari baterako txokoa erabiltzeko baimena emonaz.
2014/195	14/11/2014	M.E.U. andreari azaroak 22an afari baterako txokoa erabiltzeko baimena emonaz.
2014/196	14/11/2014	N.L.S. andreari azaroak 30ean bazkari baterako txokoa erabiltzeko baimena emonaz.
2014/197	19/11/2014	N.M.B.ri abenduak 13an bazkari baterako txokoa erabiltzeko baimena emonaz.
2014/198	19/11/2014	I.U.G.ri abenduak 14an bazkari baterako txokoa erabiltzeko baimena emonaz.
2014/199	19/11/2014	A.U.S.ri azaroak 20an afari baterako txokoa erabiltzeko baimena emonaz.
2014/200	25/11/2014	J.A.C.F ri abenduak 20an egun osorako txoko erabiltzeko baimena emonaz
2014/201	25/11/2014	S. B. aseguruia etxeak ipinitako birjarpen helegiteari emondako erantzuna



## Gatikako udala

Bizkaia

2014/202	25/11/2014	Hurrengoko ordainketak onartzen dira.
2014/203	26/11/2014	C.L empresari Udaletxeko etxaurreak birgaitzeko obra kontratu esleitzeko dekretua.
2014/204	26/11/2014	A.B.R.andreari abenduaren 5ean afari bat egiteko, txokoa erabiltzeko baimena emoteko.
2014/205	26/11/2014	I.U.G.ri abenduak 14an bazkari baterako txokoa erabiltzeko baimena emonaz.
2014/206	28/11/2014	J.B.A.ri etxearen lehenengo erabilerarako lizentzia emoteko.
2014/207	28/11/2014	S.A.Y.E.E., S.L.U.ri obra lizentzi baten luzapena emoteko.
2014/208	03/12/2014	D.S.O jn Gatikako Udaleko fatxadaren erreabilitazio obraren zuzendari fakultatiboa izendatzeko dekretua
2014/209	03/12/2014	J.A.BO eta M.E.A.M jaun-andreei Ugarte auzoan "etxebizitza eraikuntza" lanak egiteko lizentzia emoteko.
2014/210	04/12/2014	L.A.L jaunari apeak atarateko baimena ukatzea ordenatzak zehaztenduen epeak ez errespetatzeagatik
2014/211	04/12/2014	I.M.Z jaunari abenduaren 31ean afari bat egiteko, txokoa erabiltzeko baimena emoteko.
2014/212	04/12/2014	Luminaria berezien hornikuntza kontratuaren baldintza administrazioen pleguen onarpen dekretua
2014/213	09/12/2014	A.Z.E. andreei Ugarte auzoan "etxebizitza eraikuntza" lanak egiteko lizentzia emoteko.
2014/214	10/12/2014	I.J.L. andreari gas tanke bat jartzeko obra baimena emonaz

Ez dute ezer esateko. Jakitun geratu dira.

### 3. ESTANKO BIDEAREN IKERKETA ESPEDIENTEAREN EBAZPENA.

Alkateak udal atzeko bidearen gainean ikerketa bat egin dela adierazten du. Baita ere komisiotan horren inguruan jardun dugula dio eta konklusio batzuk atera direla eta horren inguruan espedientea amaitzeko erabaki bat hartu behar dela dio. Bestalde, komisiotan argi geratu zala bidearen propietatea zatituta dagoela dio. Alde batetik, etxearen izenean dagoen zatia eta, bestetik; udal jabegokoa den bidezatia. Baita ere adostu zan komisiotan erabileraren inguruan bozkatutea eta erabilera publiko bat egon dala testimonioak hori esaten dute. Orduan alkateak dio bozkatu behar dana dela bide horri erabilera publikoa bat ematea ala ez.

Vanesak Bilduren izenean dio aurreko urteetan egin den erabilera kontutan hartuta eta testiguak esandakoan oinarrituta guk erabilera publikoa defendatuko dugu. Hala ere, eurak uste dabe erabaki hauek hartu aurretik hitza eman behar jakola herritarrei eta eurak beti defendatu dabe plenoan erabaki bat hartu baino lehen entzun izatea afektatuak zer esaten daben.

Ugutzek GTIren izenenean dio eurak ados daudela erabilera publikoarekin.

Leixurik dio EAJ erabilera publikoaren alde dagoela. Alkateak esaten duen moduan ez gara sartzen titulartasunean eta uste dugu beti hori horrela izan dala eta horrela jarraitu beharko duela.

Idazkariak gero esaten dau irakurri dezutela bere informe eta badakizuela zer esaten duen idazkariak konklusioetan.



## Gatikako udala

Bizkaia

Aldeko botoak: 8

EAJ-PNV: Jesus Mari, Leixuri, Maite eta Unai Arrizabalaga.

GTI: Ugutz eta Unai Arruza.

BILDU: Vanesa eta Naiara.

Beraz osoko bilkureak bertaratuen aho batez hurrengo akordio hau hartzen du:

**Lehenengoa:** Erabilera publikoa aitortzea Estanko bideari eta berez uso publikoa duela onartzea.

**Bigarrenkoa:** Afektatuei erabilera honen edukia jakinaraztea ipini dezaketeen helegite eta errekurtsoei aipamenak eginda.

### 4. ARTZUBI BIDEAREN IKERKETA ESPEDIENTEAREN EBAZPENA.

Alkateak dio hau ere antzeko kasu bat dela. Hemen ere bete egin da ikerketa bat. Kasu honetan salaketa bat egon zan auzotar baten partetik eta horregatik egin da ikerketa horren bidearen gainean eta kasu honetan konklusioak ere nahiko argiak diren zergatik agertzen da bide hori eskritura publikoetan eta bozkatu egiten da eta ia udal titulartasuneko den ala ez.

Aldeko botoak: 8

EAJ-PNV: Jesus Mari, Leixuri, Maite eta Unai Arrizabalaga.

GTI: Ugutz eta Unai Arruza.

BILDU: Vanesa eta Naiara.

Beraz osoko bilkureak bertaratuen aho batez hurrengo hau adosten du:

**Lehenengoa:** Ibaiondo baserritik Sakoneta baserrira doan bidea udal titulartasuneko dela aitortzea eta beraz bide horren uso publikoa errekonozitzea. Hori dela eta, dagozkion izapideak egitea bide hori deskribatu dadin eta jabego erregistroan erregistratu eta inbentarioan sartzeko.

**Bigarrenkoa:** Afektatuei erabilera honen edukia jakinaraztea ipini dezaketeen helegite eta errekurtsoei aipamenak eginda.

### 5.- ESKABIDE ETA GALDERAK.

Vanesak gobernu taldeari galdetzen dio ea pasadan urtean gobernu taldeak konpromisoa hartu zuen zero zabor egitasmoaren inguruan, bere garain 10 puntu adostu ziren konpromezu agirian, alegia, puntu horietatik zenbat bete diren. Era berean, 10 ekintza horiek egiteko hamabi mila euroko partida onartu zen eta jakin gura dabe zenbat gastatu den ala ez eta zertan gastatu den.

Alkateak eratzuten deutso eskaera idatziz egin diezaiola udalari eta erantzungo zaiola.

Vanesak, oster, beste eskaera bat egiten dau. Gabon sostengarria kanpainaren inguruan, hain zuzen ere, balantze bat egitea. Hau da, zein izan den kanpainaren helburua, zergatik egin den inorekin kontatu barik, zergatik jarri diren kartelak hain berandu eta orokorrean satisfakzio maila eta produktoreak pozik egon diren ala ez.



**Gatikako udala**  
Bizkaia

Alkateak, hemen barriro ere, eratzuten deutso eskaera idatziz egin diezaiola udalari eta erantzungo zaiola.

Eta aztergai gehiago ez dagoelarik, 20.17an amaitu egin da osoko bilkura hau.

